

Arratoiak hiltzeko kanpaina

Leioako Udala arratoiak hiltzeko zenbait kanpaina egiten ari da udalerrri osoan. Horrela, astero-astero, **karraskari horietako asko egoten diren lekuak arakutzen dira, pozoia jartzeko eta**, ahal den neurrian, **karraskarien koloniak kontrolatuta izateko**.

Arratoiak hiltzeko kanpainak urte osoan egiten dira, udalerrian dauden karraskarien populazioa kontrolatu ahal izateko.

Hori horrela, **txokerako eta kontrolerako zenbait kanpaina** diseinatzen dira, arratoiak ugaritu ez daitezen. Horretarako, zorrotz jarraitzen da UNE 171210 araua, barrualdeetako ingurumen-kalitateari buruzkoa eta desinfekziorako eta intsektuak zein arratoiak hiltzeko praktika onei buruzkoa.

Eragin handieneko garaiak udaberria eta udazkena badira ere, **karraskarien presentzia egonkorra da urte osoan**, eta kopurua murriztu egiten da hotz handieneko sasoietan.



Biozidak, karraskariak kontrolatzeko

Kanpainak astero egiten dira, udalerrria sektorizatuz. Modu horretan, **auzo edo gune bat ere ez da geratzen arakatu gabe**, eta, kasu guztietan, egoera aztertzen da eta biozidadun amuak jartzen dira. **Aplikaturako biozidak ekodiseinatutakoak dira**, eta, hiru hilerik behin, materia aktiboa aldatzen da, sistemak ahalik eta ondoen funtzionatu dezan. Horrela, karraskarien balizko erresistentziak saihesten dira, eraginkortasuna areagotzeaz gain.

Biozidak **estolderia eta saneamendu sareetan jartzen dira**, esekitako amuen bitartez. Amuak ezin hobeto lotzen dira aipaturako sareetara, galdu ez daitezen. Lorategietan eta animaliak edo gizakiak egon daitezkeen guneetan, **giltzadun segurtasunezko amugailuak jartzen dira, kutsadurak saihesteko** eta biozidak babesteko, eguraldiak kaltetu ez ditzan.



Herritarren kontzientziazioa

Inguru horietako **arazo nagusia** da auzokide batzuek, asmo onez, **jatekoak eramaten dituztela** toki horietan egoten diren **ahate, uso, txakur edo katuentzat**. Azkenik, arratoiak izaten dira egoeraz aprobetxatzen direnak, eta elikagai horiek jatera irteten dira.

Karraskariek gure herrian duten presentzia saihesteko, funtsezkoa da **kaleko animalia horien elikadurari buruzko kontzientziazioa piztea herritarren artean**. Izan ere, jarrera horiek arratzen presentzia areagotzen dute.

Sastraka-guneen zainketa

Era berean, garrantzitsua da **sastraka-guneak, sasitzak eta abar ondo zaindu eta mantentzea**, gure jomuga diren espezieek habiarik egin ez dezaten eta bertan garatu ez daitezen.

Asmo horretarako, Leioako Udalak karraskariak egon daitezkeen gune publikoak kudeatzen ditu, bai eta egoera onean mantendu ere. Hala ere, **ezinbestekoa da lursailen jabeek ere garbi mantentzea inguru horiek**, arratzen habiarik egin ez dezaten bertan.

Abisuei erantzunez

Leioako Udalak, urte osoan zehar, izurriteak kontrolatzeko lanarekin jarraitzen du, eta, gainera, **herritarrek helarazten dizkioten abisuei erantzuten ere jarraituko du**, udalerrian arratoiak ikusten dituztenean.



KARRASKARIEN KONTROLA

Arratoiak hiltzeko kanpaina